

Aitona Secundinoren irudi lausoa

Txuri-beltzezko argazkia ausaz haztatu zenuen; bilatu gabe aurkitu zenuen aitona Secundino zenaren argazki horizta, txuri-beltzean. Orduan, zeure buruari galdetu zenion zergatik beti, edo ia-ia beti, argazki garrantzitsuenak aurkitzen diren azken apalategiko azken apalean aztarrika zabiltzalarik.

Ahantzuraren hondoan hainbat urtez gorderik emanda, azken apaleko sitsek jan zuten argazki zaharraren goiko ertza; erraz da irudikatzen sitsak gure aitona Secundinoren bururainoko ertza guztia irensten-grausk-grausk–zelulosazko oturuntzan.

Ertz higatuzko argazkiak Ezkabako patiora zaramatza; erraz antzematen zaio aitona Secundinori: goiko errenkadan betaurreko handiak dituen bakarra da, gatibu zela egin zioten argazki bakarra omen da eskuartean duzuna; zeure buruari zin egin diozu argazkia eskaneatuko duzula eta ordenagailuan ahaleginduko zarela aitona zenaren burua zartatuaosatzen, haren soslaia lausoa argitzen, haren irudi zarpaila txukuntzen; eta aitona Secundinok duen tristura aurpegi hori aldatu ez aldatu zabilta; eta hauxe galdetzen diozu: “Zergatik zaude triste aitona? Goiko apalategian aurkitu zaitut; sitsek jan dizute goiko ertza, eta buruan zauri bat egin dizute, baina nik sendatuko dizut zauria, aitona.”

* * *

Txuri-beltzezko afixak hormetan jartzen ari zinetela ez diozu inoiz esango amari; ez tristatzeko, kezka ez dadin. Presoen aldeko afixak zelorekin: “Enkartelada ostiralean, zortziretan (sic) Gaztelu plazan.” Mikel eta biok afixak jartzen alde zaharreko kaleetan barna.

-Goazen Gaztelu plazara, eta arkupeetan jarriko ditugu batzuk; ea txakurrak ez diren agertzen.

-Baina, Mikel, zergatik jartzen ari zara jartzen afixa Rupert-en afixaren gainean? Juxtu-juxtu Rupert-en betaurrekoen gainean: “Enkartelada ostiralean, zortziretan”

- Pasatu da.

- Ez, ez da pasatu.

-Bai, begira: “27an, osteguna”. Eta gaur, Mikel, osteguna da. Oraindik ez da pasatu.

-Baina berdin du, ezta?

- ...

Eta atzera begiratuta, beltzez jantzitako Rupert Ordorika bera, papilote handi horiek eta guzti, estali berri dugun kartealeko abeslari bera begitandu zaizu, zuri begira soraio antzean, garagardo beltz bat eskuan ~~Guinness bat segur aski~~ Gaztelu plazako mahai txiki batera eserita.

- Ez al da hori Rupert, Mikel? Beltzez jantzia, betaurreko horiek, Bai, bada; ala ez da Rupert, Mikel?

* * *

Amak kontatua dakizu aitona Secundinori Ezkabako gotorlekuan izoztu zitzaiola behatza, patrioko elur zurian lokartu zelako 1937ko neguan; antza, aitona haren gurasoekin ametsetan ari zelarik, oihuka hasi omen zen: “Aita, ama!” Orduan beste preso batek, astindu bat emanda, esnatu omen zuen. Halere, aitonak behatz bat galdu zuen, eta, harrezkero, herren ibili zen.

Amak kontatua dakizu, era berean, artean aitona Secundino bere buruaren jabe zela, behin baino gehiagotan aitortu zuela amets hari esker bizirik atera zela Ezkabatik, behatza gora behera. Behatza izoztu eta handik bost hilabetera ihesaldia izan zelarik, aitona ez zen ausartu ospa egiten, herrenka ibiliz bizirik irteteko aukerarik izanen ez zuelakoan. Horregatik ez zuen ihesaldian parte hartu, behatza falta zuelako. Gero aitonak ikusi zuen lagun iheslari asko nola harrapatu eta fusilatu zuten. Hori guztia kontatzen zuen bakoitzean, guardia zibilen eta erreketen tiroen oihartzunak aditzen zituela ematen zuen.

Aspaldi atera zen aitona Ezkabako gotorlekutik, baina urteen errotarriaren jira-biran ez zitzaizkion tiroen oihartzunak itzali. Alabaina, hirurogeita hamar urteren bueltan, Alzheimerren atzaparretan, etxeko izara zurian lokartzen zelarik, gurasoekin egiten zuen amets berriro: “Aita, ama!” oihuka hasten zen aldian behin. Hirurogeita hamar urte igarota ere, fusilen oihartzunek astintzen zuten aitona, eta aspaldian hildako gurasoei deika hasten zen.

Guztiarekin ere, bitxiena hauxe zen: lantzean behin, Alzheimer jaunak askatzen zuenean, aitonak zera esaten zigun: “Hotzez nago; behatza, tapatu behatza”. Neronek ere horrelakoetan sentitzen nuen Ezkabako hotza.

* * *

Mikelek segurtasun uhala lotu, Peugeot 205 txuri txikia martxan jarri eta argiak piztu zituen iluntzeko 9etan. Gotorlekua atzean utzita, aldapa behera abiatu zineten Artikako bidetik behera. Mikel artean urduri zegoen, kirioak dantzan. Espainiako Armadaren esparru batetik atera berriak, berrehun argazki baino gehiago eginak Mikel-en Sony kamera digitala berriarekin: giga bateko memoria-txartela bete eta gero, 16 megako memoria-txartel txiki zahar bat ere baliatu behar izan zenuten. Mikel gidatzen ari zenez, kasete zaharra sartu zenuen eta Rupert kantatzen hasi zen: “Hautsi da anphora...”

- Zu beti Ruperrekin... -esan zidan Mikelek.

Baina berari ere gustatzen zitzaion; edo hori uste zenuen zuk, bederen.

- Inporta zaizu nik erretzea?- galdetu zizun Mikelek.

Ezetz esan zenion Mikeli. Zer esango zenion, bada? Sekulako mesedea egin zizun lagun zaharrak: aitona Secundino egon zen ziegaraino, zure obsesioen sorlekuraino lagundu zizun: Peugeot zaharra gidatu, eskailerari eutsi, zulotik barrura zurekin sartu, argazkiak atera eta zuk gustuko duzun musika entzuten utzi zizun. Nola ez zenion, bada, bere autoan erretzen utziko?

Mikelek zupada luzea eman zion zigarretari, antsiar eman ere. Zupa-zupa kirioak menderatu nahian. Zupada bakoitzeko, zigarretaren punta gorriak argitzen zuen aldizka autoaren barrualde beltza. Halako batean, lagun erretzaileak zupa eta zupa ikusita, zuri ere zigarreta erretzeko

gogoa piztu zitzaizun; baina erretzeari aspaldi utzi zenion, eta Mikel hitz egiteko gogoz ari zela sumatu zenuen, kirioak uxatzeko edo:

- Badakizu nire aita oso fatxa dela, ezta?

Eta zuk baietz, entzuna zenuela.

- Bada, orain kontatuko dizut gure aita izan zitekeela mendi honetan giza-ehizan ibili zen horietako bat; aitak maiz kontatzen zigun *Hispano-Suiza* beltz dotore batekin agertu zirela herrira, Tirapura, atzetik boluntarioz beterik zetorren kamioi bat zutela. Herriko plaza txikira heldu orduko herriko gehienak han ziren: kontu handia zen horrelako auto dotorea ikustea Tirapu bezalako herri txiki batean. Errekete bat, txapel-gorria, *Hispano-Suiza* beltz handi batetik atera zenean, berehalaxe ezagutu zuen aita. Txapel-gorria Eusebio zen, Gareskoa, Esparza etxekoa. Aitak lanak izan zituen gogoratzeko nolakoa zen bi urte lehenago; lodiago zegoen, bizarra eginda, harroxko. Ez zuen ematen bi urte lehenagoko mutil gaztea; gizondua zegoen.

Txapel gorria jantzita ikusi zuenean, hasieran harritu zen aita; Eusebio eta aita bera boluntario joan ziren bi urte lehenagoko udan, hogeita hamaseian; lehenbizi Iruñera, eta hor eman zuten izena Gobernu militarrean; han *Regimiento América*-n agertzeko agindua jaso eta hara joan ziren biak batera. Aitak egina zuen lehenago soldaduska Gasteizen, hogeita hamalauan, erregularrekin, eta, horregatik, bazekien fusila ibiltzen. Eusebiok, aldiz, aitzurra baino ez omen zekien ibiltzen. Iruñetik

Aitzoainera eta Aitzoaindik Gipuzkoako frontera; han galdua zion arrastoa Eusebiori. Baina ez zuen irudikatzen erreketek.

Eusebiok gure aita ezagutu zuen: “Hara, Teófilo!”; txapel gorria erantzi zuen esku batekin eta beste eskua aitari luzatu zion: “Ze moduz, aspaldiko!”

Aitak bostekoa eman zion lagun zaharrari: gizondua eta gizendua zegoen Eusebio. Begirada ere bestelakoa zuela ematen zuen. Aitak azaldu zion baimenarekin zegoela, baina laster itzuliko zela frontera. Eta gero galdetu zion, ea zertan zenbiltzaten han auto eta kamioiarekin.

“San Kristobal-etik putakume andana batek egin zuen ihes, atzo. Zaindari bati pikotxa batekin burua zartatu eta ihes egin zuten. Zorionez, gutariko bat Aitzoiango kasernaraino joan zen lasterka eta horren berri eman zuen; hori atzo gertatu zen, igandean. Gu boluntario bila ari gara, eaosatzen dugun talde polit bat gorri separatista horiek ehizatzeke. Zuk ederki ibiltzen zenuen *mauserra*, ez? Zator gurekin, Teófilo. Horretarako etorri gara-eta, boluntarioak biltzera.” Eta txapel gorria jantzi zuen, agintaria zein zen nabarmentzeko.

Eta txapel gorriaren azpian irribarre zuri batez gelditu zitzaion beha aitari, baiezkoa noiz adituko zain. Aitak gizendua, gizondua eta doilortua ikusi zuen lagun zaharra. Irribarre zuriaren atzean bihotz belztua ikusi omen zion aitak, eta ezetz esan zion, gerora ere izango zuela tiroak

botatzeko aukera. Beste bati esateko; beraiek jadanik behin joanak zirela boluntario, bi urte lehenago, elkarrekin joan ere; ea ez zen oroitzen...

Eusebio Esparzak sudurra zimurtu, txapel gorria atondu, eta beste irribarre zuri batez erantzun zion gure aitari. Gero, batengana eta bestearengana jo zuen: “Gorri hiltzaile horiek harrapatzea untxiak ehizatzea bezain erraza izanen da” aldarrika. Baten bat igo zen, txaloka eta bibaka kamioira.

Txapel-gorria *Hispanio-Suizara* sartu aitzin, aitak galdetu zion ez noiztik zen erreketea, eta Eusebiok esan omen zion: “Ni beti izan naiz karlista, Lacar Tertziokoa, endemas!” eta, ateari kolpe bat emanda, auto beltzaren beltzean gorde zen; txapela gorria baino ez zen ikusten urruntzen ari zelarik.

Horrela kontatzen zidan aitak, hamaika aldiz kontatu ere. Oso ongi kontatzen zuen aitak...

* * *

Artika herriko argiek ekarri zaituzte orainaldira. Mikelek zigarrokina hautsontzian utzi eta beste zigarreta bat piztu du; istorioa kontatzen aritu delarik, ez du nikotinaren beharrik izan, eta ia ohartu gabe ahitu zaio zigarreta; beste zigarreta bat piztu du.

Zuk galdetu diozu zeure buruari zergatik Mikelek ez dizun hori lehenago kontatu, baina ez zara berari galdetzen ausartu.

Txuri-beltzeko errepidean Ruperrek kantatzen digu behin eta berriz kasete zaharrear: “Ez da posible, ezin liteke” eta gure Peugeot 205 txuri txikiak ez du aditu ezkerretik datorkion auto beltzak -braust!- bortizki jo arte.

* * *

- Ikusi al dituzu betaurrekoak, Mikel? Ruperren betaurrekoak bezalakoak dira.

- Ongi zaude? Zure betaurrekoak? Baina zu, ongi al zaude?

- Bai, baina betaurrekoak?

- Baina odoletan duzu burua! A ze ostia!

- Betaurrekoak? Ruperren betaurrekoak bezalakoak dira.

- Ruper? Jode, egon lasai! Tori zapi hau odol-jarioa gelditzeko!

- Odola? Eta betaurrekoak?

Mikelen zapi zikinaren odolari erreparatuta, ohartu zinen odola ez dela gorria; odola beltza da.

- Ongi al zaude?

- Bai, baina betaurrekoak?

- Egon! Beste autokoa ez da mugitzen, hilik dagoela uste dut!

- Ez dakit, ez dut ikusten. Ikusi al dituzu betaurrekoak? Txuriak dira.

- ...

- Nik betaurrekoak behar ditut.

* * *

Baina betaurreko horiek ez dituzu inoiz berreskuratuko, eta betaurrekorik gabe den-dena txuri-beltzean ikusten duzu. Buruan hartutako kolpearen ondorioa ote? Buruko zauriari darion odola beltza da, ez da gorria; semaforoa ere ez zegoen gorri zuek pasatzean. Gogoan duzu Ingalaterran ikusi eta ikasitakoa: "*Driving and driving wrecks lives*" baina ez zara orain hasiko ingelesez mintzatzen zapi utzi dizun lagunari; Mikeli ingelesez?

- Mikel?

- Bai, hemen naiz; eseri lasai, orain etorriko da anbulantzia eta ospitalera eramane zaitu. Zera, okerrera da argazki-kamera puskatu dela, zure betaurrekoen antzera. Bakarrik memoria-txartel txikia berreskuratu dut, 16 megakoa: gehienez hamabi argazki edo...

* * *

Orain, Bideko Ama Birjina ospitaleko sarreran zeure buru irekiari galdetuko diozu zergatik ospitale hitza ez den h-rekin, zeren inguruko hizkuntza guztietan "h"-rekin da, baina orduan agertu da Mikel, enkarteladarako afixak besapean dituela, eta esango dizu ezetz, italieraz ere h-rik gabe dela. Eta galdetu diozu Mikeli ea odoletan blai duzun zapi txuri hori berea den. Badakizu baietz, Mikelena dela, baina ezinezkoa da Mikel hor izatea, zeren berak afixak jartzera joan behar du... eta, gainera, *Guinness* garagardo beltza du gustuko. Garagardo beltza? Bai, *Hispano-Suiza* hura bezain beltza.

Eta burua josten dizun bitartean, erizain ile-beltz eder batek xuxurlatuko dizu hari zuria bukatu zaiola-eta, hari beltza erabiliko duela zauria josteko eta lau zentimetroko zauri ederra duzula esango dizu. Hitz hori erabiliko du: *ederra*; eta zauri ederreko lau zentimetroak josten dizkizun bitartean aitona Secundinoren argazkiaz oroitu zara: sitsek burua jan zioten toki berean baituzu orbaina.

- Tira, bukatu dut! Orbain ederra geldituko zaizu. Ongi al zaude? – hitz hori bera berriz, *ederra*; erizainaren ahotan obszenoa egin zaizu.

- Bai, ongi nago. Ikusi al dituzu nire betaurrekoak?

- Ez, bada! Hona ekarri zaituenak ez dit deus ere eman! Bakarrik esan du nor zaren, eta istripuarena kontatu digu. Tira, okerrenea pasatu da!

- Ez, ez da pasatu. Gaur osteguna da

- Nola? Bai, nik zauria josten bukatu dut; okerrenea pasatu da. Eta... gaur larunbata da.

- Betaurrekoak behar ditut.

- Bon, zu lasai...

- Betaurrekoak nahi ditut; Ruperren betaurrekoak bezalakoak dira.

- ...

* * *

Behaketa-gelan *Ez da posible* kantaren oihartzunak hartuko dizu gogoa, eta aitona Secundino ekarriko dizu gogora.

Izan ere, ondoko oheko gizon horrek Ruperrekin antza handia izanen du, eta laster aurpegiaratuko dizu zergatik ari zineten estaltzen bere kontzerturako afixak. Eta ez diozu erantzun nahi izango, ez diozu erantzun beharko, ez zara mugituko, loak noiz hartuko zain, behaketa-gela isilean. Eta loak hartuko zaituenean bere magalik magalenean, Ruperren kantaren kulunkan, bakar-bakarrik geldituko zara, apalategiko azken apalean aurkitutako aitona Secundino zenaren irudi lausoarekin, txuri-beltzean.

AMAIERA